



TREBAKUNTZA 2012/11: ERDARAKADAK (I)

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Baliarrain Tolosaldean **aurkitzen da**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.
2. * Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **beranduago**.
3. * UEMAko **herri desberdinetan** jarri da abian etorriberriak herritartzeko egitasmoa.
4. * Gutun honen bidez, eskaera **berri bat** egin nahi dizut.
5. * Hilaren 20an egingo den emanaldira etortzeko gonbidapena **luzatzen** dizut.
6. * **Ongi etorriak** Kultur Etxearen inauguraziora!
7. * Hileko azken ostegunean **ospatu** zen bilera.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **”Aurkitzen da”** gaztelaniazko **“se encuentra”** espresioaren **kalkoa da**. Euskarazko forma zuzena eta jatorra **“dago”** da.

Ad. Baliarrain Tolosaldean **dago**, Ikaztegietatik hiru kilometrora.

Bestalde oso ohikoa da **“kokatuta dago”** espresioa erabiltzea, eta hori ere gaztelaniazko kalkoa da (=”está situad@”).

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

2. “Beranduago” erabiltzeak esan nahi du **aurreneko txirrindularia ere berandu** iritsi dela, eta pentsatzekoa da lehenengoa ez dela berandu iritsi.

Ad. Lehenengo txirrindularia bostetan iritsi zen, eta bigarrena bi minutu **geroago**.

Nolanahi ere, gerta liteke testuinguru jakin batzuetan **“beranduago” ondo** egotea.

Ad. Bostetan geunden geratuta. Ni bostak eta hogeian iritsi nintzen (berandu), eta Aitor hamar minutu **beranduago**.

3. Gaztelaniazko **“diferentes” ez da beti “ezberdinak”** izaten euskaraz.

Diferentes pueblos (=varios pueblos) = herri batzuk, zenbait herri
Pueblos diferentes (=de características diferentes) = herri desberdinak/ezberdinak (hau da, ez dira berdinak, ez dituzte ezaugarri berak).

Ad. UEMAko **zenbait herritan / herri batzuetan** abian jarri da etorri berriak herritartzeko egitasmoa.

4. Euskaraz, **“berri” zaharraren aurkakoa** adierazteko erabiltzen da, ez aurrekoari zerbait gehitzeko. Horrelakoetan, **“beste”** erabiltzen dugu.

Ad. Gutun honen bidez, **beste eskaera bat** egin nahi dizut.

5. **“Luzatu”, berez, tamainari lotuta** erabiltzen da euskaraz, gauza edo pertsona bat luzatu (=luzeagoa egin), eta ez eman edo egin esateko.

Ad. Hilaren 20an egingo den emanaldira **gonbidatzen zaitut**.

6. Euskaraz ez dago –ak horren premiarik, **espresioak ez baitu ez pluralik (-ak) ez singularrik (-a)** hartzen.

Ad. **Ongi etorri** Kultur Etxearen inauguraziora!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

7. **“Ospatu” jaiak urteurrenak eta horrelakoak egiten dira,** benetan zerbait ospatzeko motiboa badago. Bestelakoetarako, **“egin”** da egokia.

Ad. Hileko azken ostegunean **izan zen** bilera / **egin zuten** bilera.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99